PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Usetxiko Hobia

Usetxiko Hobia

Esteribarren dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Esteribar non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Pertsona asko hil ziren bertan.

1938ko maiatzaren 22an
preso asko gotorlekutik ihes egin
eta Espainia eta Frantzia arteko muga
gurutzatzen saiatu ziren
baina ez zuen ia inork lortu.

Presoetako gehienak goiz atxilotu zituzten
baina talde txiki batzuk
Iruñeatik 50 kilometrotara dagoen
Esteribarreraino heldu ziren.

Gertu Zubiri 1928. urtean
Usetxin jaio zen emakume bat da.
Gertuk gogoratzen du bere amak
frankistek atxilotu zituzten 3 presoei
jaten eman ziela.

Gero frankistek presoak
Patzaranzokoetako larrean hil zituzten.
Usetxiko zenbait bizilagunek
haien gorpuak lurperatu zituzten.

Gerturi esker
3 pertsona hauen gorpuzkiak zeuden hobia
aurkitu ahal izan zuten.

2016ko irailean
Nafarroako Gobernuko
Desobiratze Programaren barruan
hobi hau desobiratu zuten.

Hil zituzten momentuan
25 urte baino gutxiago zituzten
2 gizonen gorpuzkiak aurkitu zituzten
eta 27 eta 32 urte bitarte zituen
beste gizon baten gorpuzkia ere aurkitu zuten.
Gorpuzkietako batean jertse baten kremailera
eta titare bat aurkitu zituzten.
Titare bat josterako orduan minik ez egiteko
behatzean jartzen den objektu bat da.

2020. urtean
Nafarroako Gobernuko
DNA Bankuari eskerjakin ahal izan zuten
gorpuzkietako bat Ramon Haro Gomenena zela.
Ramon Salamancan dagoen
Encinas de Abajokoa zen.

Frankistek Ramon
1937ko ekainaren 19an atxilotu zuten
25 urte zituenean
eta San Kristobal Gotorlekuan espetxeratu zuten.
Ramon Hilario bere anaiarekin
eta bere herriko beste bizilagunekin batera espetxeratu zuten.

Hemen hobiaren desobiratzearen
argazkia ikus dezakezu:

